



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Federación Guipuzcoana de Montaña

GIPUZKOAKO ESKALADA ESKOLAK – 2014 - BERREKIPAMENDUA

ZIRKULAR INFORMATZAILE OROKORRA

- Pyrenaica-n argitaratu zen moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua, 25 eskalada-eskolako berrekipamendua finantzatuko du 100.000 euroekin. Kolaborazio-kontratuaren sinadura berehalakoa da.
- Aurrekontu honetan, ekipamendu, materialak, erremintak, eskulana eta panel informatiboak sartzen dira.
- Ez da bide berriak ekipatzeko diru-laguntzaren aurrekontua.
- GFAk nor bere Udaletxeekin hitzartuko ditu sarbideen egokitzapena (parquing-etako garbiketa, bide-sastraka-kendu) eta panel informatiboen mantenua.
- Lan eraginkorreko 62 egunetako, lau ekipatzaile kontratu laboralarekin aurreikusten dira.
- Ekipatzaile taldeak eratuko du: Eskola-Mendizaletasun kanpainarako, urtero 4 hilabetetan zehar, Federazioak kontratatzen dituen lau teknikarieratik bi, bere gaurko kontratua, betebeharrak berri honetarako handituz. Goi Mendi Eskolako teknikari bat. Gipuzkoan federatutako eskalatzaile eta aditu bat, apirilaren 11tik maiatzaren 5arteko deialdian aukeratuta gertatzen dena.
- Dauden bideen %40 berrekipatuko da, hondatuta dauden materialak berriengatik ordezkatzuz.
- Inongo bide berririk ez da irekiko, ezta ere erdiekipatutako bide klasikoetan, bileraren bat egoera txarrean berritzerik ezean. Hain zuzen, bere urruntasunagatik eskalada klasikoaren praktikorako egokitzen diren 3 eskola proiektutik kanpo utzi dira.
- Eskola bakoitzaren gaurko ekipamendu tipoa errespetatuko da, ainguraketa kimiko edo hedapen-torloju sistemako edo parabolts-etakoak.
- Gaur egun GFAko Landa Garapeneko departamentua, azterketa bat egiten ari da eskola guztietan, babestutako espezieak dituzten zehazteko. GFAk ez du eskalada debekatu nahi era orokorrean, espezie mehatxatu zehatz batzuen behar eta bizi-zikloaren arabera erregulatzea baizik. Horregatik, okasio zehatz batzuetan, plaka batzuk agertuko dira, non ezin den igo esanez eta zer dataren artean. Guztion kolaborazioa ezinbestekoa da. Eskalatzaileek, eskalada ingurumenaren babesarekin bateragarria dela frogatu dezakete. Horren guztia, jakinaraziko da panel informatiboetan eta etorkizunean prestatzen den webgune espezifikoa (ikus adierazpena, Basa-Fauna eta Flora Zerbitzuarena; eranskina).
- Eskolak kokatzen diren tokian, lurren jabegoari buruzko ikerketa egingo da. Haietako sektore batzuk, lur pribatutan daudenez, ezin dira berrekipatu jabeen baimenik gabe.
- Aurrez ikusten da berrekipamendu lanak ekainean zehar hastea. Lur publikoan kokatuta eta babestutako espezieetan libre daudenetan egingo da.
- Lanak hasi baino lehen, eskalatzaile taldea eta 2012an borondatez, eskolen hutsen informazioa eman zuten teknikariak, bilduko dira; 2013ko diagnostikoaren errealizazioan erabili zen informazioa. Eskola bakoitzerako programatutako berrekipamendu plana, haiekin egiaztatuko da. Ahal den neurrian, aurrekontuaren barruan, adosteko egin beharrekoa, akatsak konpontzeko edo diagnostikoan aurrez ez ikusitako ekipamenduak osatzeko. Lekuaren eta datari buruz informatuko da.
- Eraginkortasunagatik, hasieran, teknikari eta eskalatzaile talde txiki honekin kontaktatzen da. Baina, baita ere, aukera egongo da, beste eskalatzaile interesatu batzuen laguntza izatea, iradokizun gutunontzi bat GMFko webgunean zabalduz. Prestatuta dagoenean informatuko da.
- GMFk onartu du ekimen hau burutzea, segurtasuneko eta kalitateko eskalada egiteko, arrazionalizatzeko eta kostuak optimizatzeko, etorkizunean programatutako mantenu periodikoa ziurtatzeko, eskalada ingurumenaren babesarekin bateragarri eginez, eskalatzaileak sentikor bihurtzeko, erantzukizun zibil deribatutik babesteko ekipatzailei eta formatu berdina duten panelen bitartez informazioa bateratzeko, iradokizunetako eta kontsultarako webgunearen bidez.
- Negoziazio prozesuan gaude izan litezkeen babesleekin, publizitatearen bitartez, urteroko ekarpen batekin, benboraldi bakoitzean egin beharko den mantenimendu programatua bermatzeko, berez GFAk jarri beharko lukeen kopurua gutxitzeko.

Donostia, 2014ko apirilaren 30ean